

ZUMAIAKO UDALA

GIPUZKOAKO PROBINTZIA

2005EKO APIRILAREN HOGEITA ZORTZIAN UDAL PLENOAK EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIKO AKTA.-

Zumaiako hirian, bi mila eta bosgarren urteko apirilaren hogeita zortzian, arratsaldeko zortzietan, Udaletxe honetako Biltzar Aretoan (Foronda Kultur Etxean), Udal Plenoa eratu da ohiko batzarraldia egiteko asmoz, aurrez izendatutako eguneko aztergaiari jarraituz. Eta garaiz eta behar bezala deituak izan zirelarik, ondorenean aipatzen diren korporazio kideak etorri ziren:

LEHENDAKARITZA.-

Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA Andrea.

ZINEGOTZIAK.-

Asier ESNAL ALBIZU jauna.
Manuel ZUBIA ARTABE jauna.
Lide AMILIBIA BERGARETXE andrea.
Mikel OLAIZOLA ELOSUA jauna.
Joseba Josu ASPIAZU AZKARRAGA jauna.
Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA jauna.
Abel YEREGUI SASIAIN jauna.
Emiliano CABAÑAS GONZALEZ jauna.
Paloma HEREDERO NEGREDO andrea.
Cristina FORCADA UNANUE andrea.

IDAZKARIA.-

Miren ETXEZARRETA GARMENDIA.

1.- AURREKO BILERAKO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKO BADA (2005.02.24)

Alkate-Lehendakari andreak bilera eratutzat eman ondoren, korporazio kideren batek onarpenera aurkezturiko aktari buruzko oharpenik egin nahi lukeen galdetzen du.

Halaber, adierazi du, aktaren 4. puntuan, hauteskunde autonomikoak jartzen duen lekuan, Europar Konstituzioko Erreferenduma jarri behar duela.

Oharpen gehiagorik adierazten ez denez, bozketa eginik, korporazio kideek aho batez onartzen dute 2005-02-24ko batzarraldiaren akta.

2.- ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA: GAO_n AKATS ZUZENKETA ARGITARATZEA.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen kontseiluak, 2005eko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Zumaiako Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategina (partziala) onartu zuen, baldintza honekin: lurzoru ez urbanizaezinaren araudiaren 143.5 artikulua nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenei lotu gabeko etxebizitzak egiteko debekua jasotzea, eta lurzoru urbanizaezinaren zonakatzean "Azaleko uren babes eremua" kategoria jasotzea, EAeko ibaien eta erreken ertzen LZPan zehaztutako tarteei jarraituz.

Bestalde, honela dio, hitzez hitz, erabaki horren azalpenezko zatiak:

"(...) Azkenik, Planaren zenbait akats eta kontraesan zerrendatzen ditu Aldundiko zerbitzu teknikoek egindako txostenak; alabaina, hura aplikatzean gerta daitezkeen arazoak aitzat hartuta, udalak balioetsi behar du horiek planaren araudia argitaratu aurretik zuzentzea komeni den."

Udal plenora bidaltzen da ondorengo agiri hau, akats horiek zuzentzen dituenak. Akatsok modu honetan zerrendatzen dira, orrialde kopurua aipatuz:

1. DOKUMENTUA ANTOLAMENDU MEMORIA: 5 orrialde.
32., 35., 41., 52. eta 53. orrialdeak zuzentzen dira.
2. DOKUMENTUA EKONOMIA ETA FINANTZA AZTERKETA: orrialde 1. 79. orrialdea zuzentzen da.
3. DOKUMENTUA HIRIGINTZA ARAUAK 52 orrialde.
Artikulu hauek zuzentzen dira:
2,5,7,9,10,11,13,15,16,17,18,19,20,22,23,
25,27,28,29,35,54,104,107,115,122,132,13

- 7,140,143,146,154,157,159,162,164,172,175,176,178, eta katalogoa.
4. DOKUMENTUA HIRIGINTZA FITXAK: 14 orrialde.
Area hauen fitxak zuzentzen dira: AU01, AU03, AU04, AU08, AU11, AU12, AU15, AU17, AU 18, AU 19, eta S.G 5.
5. DOKUMENTUA PLANOAK: 2 plano.
5.12 eta 5.13. planoak zuzentzen dira.

Bozketa egitera deituta, udalbatza osatzen duten zuzenbidezko hamahiru kideetatik, bertaratu diren hamabi kideen aho batasunez, hau ERABAKI DA:

LEHENA: Zumaiako Udalak sustatu eta Luciano Pagaegi Bilbao eta José Luis Loinaz Arrieta arkitektoek idatzitako ZUMAIAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENAREN TESTU BATEGINAREN (PARTZIALA) AKATSEN ZUZENKETA agiria onartzea, Diputatuen Kontseiluaren 2005-01-25eko erabakia betez.

BIGARRENA: Espedientea Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea, hura argitara dezan eskatuz.

3.- SANTIXOKO BARNE ERREFORMAKO PLAN BEREZIAREN BEHIN BEHINEKO ONARPENA.

Alkateak adierazi du Santixoko hondartzaren antolamendu xehekatua Zumaiako Udalari eta Getariako Udalari dagokiela, hondartzaren azalera bi herri horien mugetan zabaltzen baita.

Hondartzaren egoera eskasaren ondorioz, bilera ugari egin dira Zumaiako Udalaren eta itsasbazterren arloan eskumena duten arduradunekin.

Badakigu Santixoko hondartza eraberritzeko lanak Madrilera bidalitako zerrendan jasotzen direla, eta, ziurrenik, lanok 2007an hasiko direla. Epe hori laburtzen saiatuko gara, eta epe hori laburtzeko asmoa adieraziko dugu Madrilen egingo dugun bileran.

Ondoren, erabaki proposamena irakurri da:

2002-07-24ko 175/02 zenbakiko alkatetza dekretuaren bidez, Zumaiako Planeamenduaren Arau Subsidiarioetako Dunen Eremuko (Santixoko hondartza) 2. Sistema Orokorra garatzeko Plan Bereziaren **aurrerapena** onartu zen. Halaber, dekretu horren bidez, Zumaiako Udalak sustatu eta Luciano Pagaegi Bilbao arkitektoak idatzitako agiri hori 30 egunez erakutsi zen jendaurrean, iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

Honako hauek aurkeztu zituzten **iradokizunak**: Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepideen Departamentuak, Itsasbazterren Zerbitzuak eta Getariako Udalak.

Guztiak ere administrazio publikoak direnez, bilera teknikoak egin ziren horiekin, txostenaren edukiak argitzeko eta, hala balegokio, hasierako proposamenak aldatzeko.

2003-05-22ko udalbatzan, hasierako onarpena eman zitzaion agiriari eta jendaurreko erakusketa epea ireki zen.

2003-10-28 alkatetza dekretuaren bidez, 15 egunez luzatu zen jendaurreko erakusketa epea.

Jendaurreko erakusketaren tramitea amaitu ondoren, alegazio hauek aurkeztu ziren garai eta modu egokian. Taula honetan jasotzen dira alegazio horien edukien laburpenak eta horiei dagozkien ebazpen proposamenak:

| ALEGAZIO JARTZAIL. | EDUKIA | TXOSTEN TEKNIKOA | EBAZPEN PROPOSAME NA |
|---------------------------|---|--|--|
| ITSASBAZT. ZUZENDARI TZA | 1.-Jabetza erregimenari buruzko akatsa 2.6 planoan eta 4.6 memorian. 2.-2003ko iraileko hirigintza fitxa egokitzea. 3.-Zona berde pribatuaren zati bati ILJP izaera ematea. 4.-Janari eta edarietako establezimenduen gehienezko azalera 150 m ² -koa izatea, eta horietatik 50 irekiak izatea. 5.- Arrapalaren 7 metroko zabalera justifikatzea. 6.-Ur beltzak hodi biltzaile nagusira joatea. 7.-Orruako ibiltokia oinezkoentzat izatea. 8.- Administrazioari egokitzea emakida administratiboen amaiera. | 1.-3.-1.7 (jabetza erregimena), 2.4 (zonakatzeko xehekatua eta lurzorua erabilera), eta 2.6 (lurzorua jabetza eta erabilera erregimena) planoetan ILJP nabardura jasotzea, Zuloaga finkan zona pribatu gisa adierazten den triangulu formako zona. 1.7 (jabetza erregimena) eta 2.6 (lurzorua jabetza eta erabilera erregimena) planoetan Gipuzkoako Foru Aldundiaren Errepide Azpiegituren Departamentuaren jabetza erregimena zuzentzea 2.- Arau subsidiarioen berrikuspenaren 2. sistema orokorraren azken fitxa zuzendua jasotzea eranskinean. .- Alegazioan jasotako gainerako alderdiak zuzentzea. .-Arrapalaren zabalera beharrezkotzat jotzen da hainbat trafiko egoeratan (anbulantziak, biraketak, maniobrak etab.) bertara daitezkeen pertsonen antolamendua egiteko, baita beheko solairuan dauden hondartzako zerbitzuak arrazionaltasunez antolatu ahal izateko ere. | Alegazioa ONARTZEA, txostenean adierazitakoaren arabera. |

| | | | |
|------------------|--|--|---|
| ERREPIDEAK | <p>.-Aldeko txostena.</p> <p>.-Aintzat hartu beharreko alderdia izango da, beste proiektu batean, 634 errepide nazionalerako bidegorriaren espaloia egiterakoan, hura egin bitartean trafikoari ahalik eta oztopo gutxien jarriko diona.</p> | <p>.-Aintzat hartu beharko da obra proiektuak egiterakoan, eta 634 errepide nazionalerako arku tipikoak egitea proposatzen da, Zarautzen berriki eraikitako hegialak jarri beharrean.</p> | <p>ALEGAZIOA onartzea, txostenak adierazitakoaren arabera.</p> |
| GONZALO TORRE | <p>1.- Plan berezia egin baino lehen, Zumaiako Natur Baliabideen Antolamendu Plana egiteko premia adierazten du.</p> <p>2.-Sistema naturalen lehengoratzeko planei egindako erreferentziak kentzeko eskatzen du, eta horiek lehengoratzeko proiektuaren idazketa fasean zehazteko.</p> <p>3.-Urbanizazio eta lehengoratzeko proiektuek ingurumenean izango duten eraginari buruzko azterketa bat egin beharra jasotzea eskatzen du.</p> <p>4.-Jendeak parte hartzeko bideak irekitzea eta ekarpen osagarriak jasotzea eskatzen du.</p> <p>5.- Interesduna izatea eskatzen du, baita plan bereziari dagozkion eta Santixoko hareatzari eragiten dioten jarduerak oro hari jakinaraztea ere.</p> | <p>1.- Ez da jasotzen udalerriko Natur Baliabideen Antolamendurako Planik egin beharra arau subsidiarioetan, ezta 93ko arauetan eta berrikuspenean ere, agiriok plan berezi baten esku uzten baitute eremu horren antolamendu xehekatua egiteko ardura.</p> <p>2.-Ikus 13. ordenantza, "Galdagarritasuna eta baldintzak". Planak alegazioan adierazitakoa betetzen du, proiektu horien azken zehaztapenei buruzko alegazioak baitira.</p> <p>3.-Lehen adierazitako 13 ordenantzak jasotzen du, halaber, obra horien ingurumen azterketa egin beharra.</p> <p>4.-5.-Jendearen parte hartzeari dagokionez, indarrean dagoen legedia betetzen da.</p> | <p>PARTZIALKI ONARTZEN DA</p> |
| IOSU URANGA | <p>.- Agiria euskarara itzultzea eta jendaurreko erakustaldi berriz egitea eskatzen du.</p> | <p>.- Euskarara itzultzea eta jendaurreko beste erakustaldi bat egitea proposatzen da.</p> | <p>Alegazioa ONARTZEA txostenean adierazitakoaren arabera.</p> |
| ALFONSO SANTIAGO | <p>1.-Saneamendua kirol portuaren sare nagusira lotzeko eskatzen du.</p> <p>2.-A13 eta A14 zonetan espezieak landatzeari buruzko zenbait ohartarazpen egiten ditu.</p> <p>3.-Obrak egin baino lehen A13 zona hesitzeko eskatzen du, hura babesteko.</p> <p>4.-8.2 eta 8.3 kapituluak kentzeko eta horiei dagozkien obra proiektuen baldintza pleguen eta ingurumen eragineko azterketen menpe jartzeko eskatzen du.</p> <p>5.-Balioespenak zenbaterako sinbolikoak dituztela adierazten du, eta premiak aurretiaz zehazteko eskatzen du.</p> | <p>1.- Itsasbazerren legearen 65. artikulua haxe dio: saneamendu instalazioak saneamendu sare orokorrari (halakorik balego) lotu behar zaie, eta debekatuta dago drainatze edo xurgatze sistemak hondartzen hondarrari edo bainatzeko uren kalitateari eragitea. Ur partzuergoak duenez udalerraren saneamendu integraleko sarearen gaineko eskumena eta Santixoko sarea horrekin lotzeko lanak egiten dituen hodi biltzailea oinarritzko saretzat jotzen denez, udalak horretarako eskaera aurkeztu beharko dio erakunde horri.</p> <p>2.-Dunen berreskurapena A1.3-ari dagokio, eta ez A.I.4-ri, azken hori hondartza baita, zentzu hertsian. Espezieen landaketa egiteko une egokienari dagokionez, alderdi hori proiektuan zehaztuko da, eta Itsasbazerretako Zuzendaritzak, Ingurumen Sailak eta Zumaiako Udalak ezarritakoaren arabera egingo da. Aintzat hartu beharko da, gainera, lan horien esleipen eta gauzapean data.</p> <p>3.-Espezieak babesteko, obrak egin aurretik hesiak jartzeko ardura urbanizazio eta eraikuntza proiektuei, ingurumen eragineko azterketei eta obren segurtasuneko eta osasuneko azterketei dagokie.</p> <p>4.-Planaren 8.2 eta 8.3 atalak kendu eta horiek baldintza pleguen mende jartzeari dagokionez, adierazi behar dugu horiek "Dunak lehengoratzeko eta zaintzeko proiektuan eta ibilbide didaktikoaren proiektuan aintzat hartu beharreko alderdiak" direla, baina 8.2 atalaren lehen paragrafoan adierazten denez, "lanen berri zehatzagoa izateko, berriazko proiektuarekin batera jasoko diren baldintza teknikoaren plegua kontsultatu beharko da; batik bat, kimuen jatorriari eta kalitate baldintzei dagokienez, ezinbestez bete beharrekoak izango baitira". Izan ere, ez da nahastu behar Plan Berezi baten memoria obren exekuzioko berriazko proiektu baten baldintza teknikoaren pleguarekin.</p> <p>5.-Plan bereziak zehaztu ditu premiak eta horietan oinarrituta egin da balioespen ekonomikoa; ondorioz, ez da ulertzen alegazioaren puntu hori. "Zenbaterako sinbolikoei" dagokienez, sistema orokorreko plan berezien azterketa ekonomikoa orientagarriak dira, horien helburua ez baita onura ekonomikoa lortzea, gizartearen onura baizik. Balioespen horren garapeneko agiria —materialei eta unitateko prezioei dagokienez— aurrekontua da, eta obra proiektuari dagokio hura egitea,</p> | <p>1. eta 3. alegazioak ONARTZEA eta 2., 4., eta 5. alegazioak EZ ONARTZEA. PARTZIALKI ONARTZEN DA</p> |

| | | | |
|-----------------|---|--|--|
| | | eta ez antolamendu planari | |
| NATUR TALDEA | .-Herriko entitateen iritziak aintzat hartzeko eskatzen dute, eta, hori posible izan dadin, epea luzatzeko. | .-Gutxienezkotzat jo behar da lurzoruaren legearen erregelamenduan jendaurreko erakustaldiak egiteko jasotzen den epea . Herritarren partaidetza bermatzeko, besteak beste, jendaurreko erakustaldietarako bidea erraztu behar da. | Alegazioa ONARTZEA, txostenean adierazitakoaren arabera. |

Plan berezia behin behineko izaeraz onartzea proposatzen dio Hirigintza Batzordeak udalbatzarrari, baita hura Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea ere, behin betiko onar dezan.

Alderdi politikoaren parte hartzerako txanda ireki da. Kontra bozkaturiko duela adierazi du IZUSTARRI taldeak, eta, ondoren, idatzi hau irakurri dute:

Santioko Plan Berezia

Hirigintza Batzordean Santioko Hondartza berritzeko Plan Berezia dugu aspaldian hizpide.

*Asko aldatu da Santioko hondartza, denbora gutxian, batez ere, barra berritu denetik: hondar-eremu handia egin da ("desertua"); gero eta jende gehiago joaten da, batez ere Itzurunen galipota dagoenetik; joaten direnetako asko autoa erabiltzen dute eta horrek aparkatzeko arazoak eragiten ditu; dunaren eremua zabaldu egin da ... Santioko instalazio eta zerbitzuak, ordea, ez dira bat joan aldaketa horiekin eta **nabarmena da berritu edo egokitu beharra dagoela**. Hori da, hain zuzen, Plan bereziaren abiapuntua, eta Izustarri ere bat dator behar horrekin.*

*Hortik, aurrera, ordea, hainbat zalantza sortzen dizkigu Plan honek. Hasteko, **presa handia**, dago, **handiegia**, aurrera ateratzeko, badirudi epeek agintzen dutela hausnarketaren gainetik, eta hori ez da ona. Gure ustez, ezeri ekin aurretik, beharrezkoa da puntu edo oinarri batzuk finkatzea, eta Plana horren gainean edo horiei jarraituz egitea.*

*Hasteko, Santio, aisialdiko eremu izateaz gain, gune natural paregabea da eta halaxe **babestu behar da**, orain arte ez bezala; dunetarako sarrera murriztu, zenbait jarduera debekatu (ibilbideetatik kanpo ibiltzea, landareak kentzea ...) Santioko duna guztion altxorra da eta zaindu beharra daukagu.*

*Bestalde, ondo aztertu beharra dago nolako hondartza behar edo nahi dugun, eta hondartza horrek nolako zerbitzuak behar dituen. Ahal baldin bada, **gaur egun eraikita dagoen zatia aprobetxatu behar da**, eremu gehiago hartu gabe. Gure ustezko erosotasunaren izenean, hormigoiak eta asfaltoak ezin du hondartza jan; orain baino gehiago ez behintzat.*

***Aparkalekuak:** ahal izango bagenu, autoa urertzera ere eramango genuke... Gure ustez, inguruan dauden aparkalekuak behar bezala aprobetxatu behar dira, batik bat kirol-portukoa eta Astillero ondoko zabaldegi handikoak.*

*Azkenik, **herritarren eta interesatuen parte-hartze eta iritzia:** egon badago Udalean horrela izena duen batzordea, baina izenetik izanera... Gure ustez, hainbat lagun, elkarte eta talde interesatuta daude gaian eta horiekin lan egin beharra dago, eta ez bakarrik horiek jarritako alegazioak aztertu eta baztertu. Lagun eta talde horiekin lan egin beharra dago, hasiera hasieratik.*

Alkateak banaka erantzuten die esandakoei:

.- Errepide nazionalaren arazoa: lanean ari gara alternatiba bat aurkitzeko, eta lanean jarraituko dugu.

.- Gu ere hormigoia erabilpen neurrigabearen aurka gaude. Gipuzkoako itsasbazterreko hondartzetatik, egoera okerrean dagoena dela aitortzen dugu.

Irtenbide bat bilatzen ari gara, hondartzak paisaia egoki txertatutako zerbitzuak izan ditzan eta ingurumenean egindako esku hartzea ahalik eta txikiena izan dadin.

Bateratu egin behar ditugu Itsasbazterren Zuzendaritzaren eta Osakidetzaren eskakizunak. Itsasbazterretako Zuzendaritzak estalkipeko 100 m² soilik uzten ditu hondartzako zerbitzuetarako, eta Osakidetzak zenbait baldintza ezartzen ditu zerbitzuok jarri ahal izateko: jendearentzako eta langileentzako komunak izatea, langileentzako aldagelak, etab. Hori dela eta, zaila da baldintza guztiak batera betetzea.

.-Ingurunearen natur balioari dagokionez, planak errespetatu eta babestu egiten ditu.

.-Herritarren parte hartzea eta interesatuen partaidetza bermatuta dago. Horren adibide dira Tokiko 21 Agenda, Euskararen Aholku

Batzordea, eta beste, zumaiar banakoek eta taldeek parte hartzen baitute organo horietan ere.

Idatzizko alegazioak aurkeztu dituzte zumaiar banakoek eta taldeek, eta Plana idatzi duen pertsonarekin ere bildu izan dira. Alegazio guztiei erantzun zaie. Horietako batzuk onartu egin dira eta beste batzuk ez.

Ondoren, bozketa egin da:

Zuzenbidezko kideak: 13

Bertaratutako kideak: 12 (EAJko 5 ; IZUSTARRIko 2; EAko 2; PSOEko 2 eta EBko 1)

Aldeko botoak: 9 (EAJko 5; EAko 2; PSOEko 2)

Kontrako botoak: IZUSTARRIko 2

Abstentzioak: EBko 1

ERABAKI DA:

LEHENA: Behin behineko izaeraz onartzea Zumaiako Udalak sustatu eta Luciano Pagaegi Bilbao arkitektoak idatzitako Barne Erreformako Plan Berezia.

BIGARRENA: Espedientea Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea, eta hura behin betiko onartzeko eskatzea.

4.- TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUEN ORDENANTZAREN ALDAKETA.

Haziendako Batzordearen batzordeburuak gogoratu du hitz egin zela batzordean trakzio mekanikozko ibilgailuen ordenantza aldatzeko proposamenari buruz.

Zergaren ordenantzak zerga salbuespenak jasotzen ditu ezinduta dauden pertsonentzat; betiere, ibilgailua ezinduta dagoen pertsonarena bada edo, beste batek erabiltzen badu, baina ezinduta dagoen pertsonari zerbitzu emateko.

Zerga salbuespena eskatzen duenak zinpeko adierazpen baten bidez kreditatu behar du baldintza hori betetzen duela.

Ez da erraza, ordea, ibilgailuen erabiltzaileen kontrola egitea. Hori dela eta, gaia batzordean eztabaidatu ondoren, trakzio mekanikozko ibilgailuen zirkulazioko zerga arautzen duen ordenantza aldatzea

proposatzen da, eta ordenantzaren testuari hau eranstea: "*baita, udaltzainen ikuskapen lana errazteko, autoaren haizetakora erantsita joan beharko duen eranskailu bat ere*". Horrenbestez, eranskailu bat jarri beharko da, ikusteko moduan, ibilgailuan, udaltzainek uneoro jakin dezaten ibilgailuaren erabiltzaileek ezintasunik baduten ala ez. Ibilgailua ez bada ezintasunik dituen pertsona batek erabiltzen edo ez bada ezintasunik dituen pertsona bati zerbitzu emateko erabiltzen, ohartarazpen bat egingo da.

Finean, maulazko jokabideei aurre egiteko neurria da.

PSOEkoen ustez, ezintasunik dituzten pertsonen autoetan eranskailuak jartzeak pertsona horien pribatutasuna bortxa dezake, eta beren sentikortasunari min eman.

Gure ustez, ez da inor adierazi behar eranskailu baten bidez.

Donostian ere, ezintasunik dituzten pertsonak salbuetsita dute zergaren ordainketa, baina ez zaie eranskailurik jartzeko eskatzen.

Ezintasunik dituzten pertsonentzat gordetako aparkalekuetan aparkatzen dutenean ere gauza bera gerta dakiekeela adierazi dute EAJkoek. ONCEkoek ere bereizgarriak daramatzate. Gainera, ez da lotsagarria ezintasunik izatea. Maulazko jokabiderik ez balego, ez litzateke beharrezkoa. Neurri horren bidez, jendearengan eragin nahi da. Araua egitea da errazena, baina betetzen ote den kontrolatzea da zaila.

PSOeko ordezkariak zein EAJko ordezkariak arrazoiaren zati bat dutela aitortzen du IZUSTARRIk, eta hau proposatzen du: jendeak ez, baizik eta udaltzainek soilik ezagutuko duten bereizgarri bat jartzea ezintasuna duen pertsonaren autoan. Hala eginez gero, ez da pertsonen pribatutasuna urratuko.

Ordenantzaren testu aldaketa bozkatzeko deia egin da. Testu aldaketa bere horretan bozkatuko da; baina, IZUSTARRIk proposatutakoari jarraituz, jarri beharreko eranskailuak ezintasunik dituzten pertsonen pribatutasuna errespetatu beharko du.

Ondoren, bozketa egin da:

Zuzenbidezko kideak: 13

Bertaratutakoak: 12 (EAJko 5 ; IZUSTARRIko 2; EAKo 2; PSO Eko 2 eta EBko 1)

Aldeko botoak: 12 (EAJko 5 ; IZUSTARRIko 2; EAko 2; PSOEkko 2 eta EBko 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

Udalbatza osatzen duten kideen gehiengo osoz, eta Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.3 h) artikuluan araututako quoruma betez, hau

ERABAKI DA:

1.- Hasierako onarpena ematea trakzio mekanikodun ibilgailuen zerga arautzen duen ordenantzaren aldaketari, erabaki honen azalpenezko zatian adierazitakoarekin bat etorriz.

2.- Jendaurreko erakustaldi epe bat irekitzea, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko. Epe hori 30 egunekoa izango da, iragarkia GAOn argitaratzen denetik kontatzen hasita. Erreklamazioak edo iradokizunak aurkeztuz gero, udalbatzak ebatzi egin beharko ditu, eta aurkezten ez badira, behin betiko onartuko da aldaketa.

5.- HERRI BIDEEN PROIEKTUAREN BEHIN BETIKO ONARPENA, OHARPENAK EBATZIAZ

Alkate Lehendakariak adierazi du 2004ko azaroko 25ean egindako udalbatzarrean hasierako onarpena eman zitzaiola Zumaiako Herri Bideen Azterketari. Azterketa hori Conchi Uriarte Seminariok idatzi du, Maria Jesus Antia Albizuk lagunduta.

Azterketa 15 egunetan erakutsi zen jendaurrean, eta horren iragarkia GAOn, tokiko prentsan eta udalaren web orrian argitaratu zen.

Geroago, luzatu egin zen epea, eta bilerak egin ziren interesatuekin eta azterketak eragindako baserritarrekin.

Hiru alegazio aurkeztu dira garaiz eta modu egokian, eta azterketaren egileak horiei buruzko txostena egin du.

Taula honetan adierazten dira aurkeztutako alegazioak eta horiei dagozkien ebazpen proposamenak, egindako txostenean justifikatuak:

| ALEGAZIO JARTZAILEA | ALEGAZIOA | EBAZPEN PROPOSAMENA |
|---|--|---|
| Jose Julián Alberdi Manterola (2005-02-02) | 12.1 bide adarra Errota-Berri BASERRIAREN | Alegazioa onartzea; izan ere, Errota-Berrira joateko bidea hori |

| | | |
|---|---|--|
| | AURRIETARAINO luzatzea eskatzen du, adar hori Errotaberri baserriaren gorputz bidea zela argudiatuta. | zela adierazi dute Olalde baserrikoek. |
| Jose Luis Egaña Arriola (07-03-2005) | 2 alegazio egin ditu: 1.-7. bidea: Narrondotik San Lorentera, Azkoin baserrietatik barrena. Bide hori, alegazio jartzailearen esanetan, ez da inoiz herri bidea izan. 2.- 8. bidea: Zumaiatik Ibañarrietara, Urbietta eta Kantera baserrietatik barrena. Pribatua dela esaten da, herritar batzuen artean egindakoa, transformadoreari buelta eman behar ez izateko. Bide publikoa pixka bat ekialderago zihola esaten da. | 1.- Alegazioa ez onartzea: jabeek onartzen dutelako bidea pertsona batzuek erabili izan dutela, eskrituretan gurdibide batek okupatutako azalera deskontatzen delako eta lekukoek bidea herrikoa dela esaten dutelako. 2.- Alegazioa onartzea, bi arrazoi hauengatik: .-Alegazioa jaso duen bide zatiaren eskrituretako deskribapenak dio ekialdean gurdi bide zaharrarekin egiten zuen muga. .-Katastroko argazkia: inbentarioan markatutako ibilbidea partzelaren ekialdetik doala ikusten da, eta partzelaren ekialdeko muga bide zaharra dela. |
| Odriozolatarrak (2005-03-08) | 2 alegazio aurkeztu dituzte: 1.- 8. bidea: Zumaiatik Ibañarrietata, Urbietta eta Kantera baserrietatik barrena. Azpiestazioaren eta errepidearen arteko tartea, Kantera baserriaren parean, partikularra dela alegatzen dute, eta herritar batzuek egin zutela. 2.- 7. bidea: Narrondotik San Lorentera, Azkoin baserrietatik. Bide horren lehen zatia gasolindegia egin zenean desagertu zela alegatzen da, eta egun bidea beren lurretatik igarotzen dela eta ez dela herri bidea. Ez da dokumentaziorik aurkezten. | 1.- Alegazioa onartzea, bi arrazoiengatik: .-Alegazioa jaso duen bide zatiaren eskrituretako deskribapenak dio ekialdean gurdi bide zaharrarekin egiten zuen muga. .-Katastroko argazkia: inbentarioan markatutako ibilbidea partzelaren ekialdetik doala ikusten da, eta partzelaren ekialdeko muga bide zaharra dela. 2.- Alegazioa ez onartzea: .-Eskriturak: neurketa egiteko, bidearen azalera deskontatzen da, eta horrek bidea, pribatua ez, baizik eta herri bidea zela frogatzen du. .-Testigantzak: bide hori herri bidea zela adierazten dute. |

Halaber, Santa Klarako bidearen publikotasunari buruzko azterketa bidali zion udalak.

Udal artxiboan, eskrituretan eta testigantzen bidez bildutako informazioa aztertu ondoren, hau ondorioztatu da: bide hori ez da herri bidea.

Ondoren, bozketa egin da:

Zuzenbidezko kideak: 13

Bertaratutakoak: 12 (EAJko 5; IZUSTARRIko 2; EAko 2; PSOEko 2 eta EBko 1)

Aldeko botoak: 12 (EAJko 5; IZUSTARRIko 2; EAko 2; PSOEko 2 eta EBko 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKI DA

1.- Zumaiako herri bideen inbentarioari jarritako alegazioak ebaztea inbentarioaren egileak egindako txostenari jarraituz. Txosten hori erabaki honen azalpenezko zatian laburtzen da.

2.- Zumaiako Herri Bideen Azterketa behin betiko onartzea, alegazioen ondoriozko aldaketak jasoz. Azterketa hori Conchi Uriarte Seminariok idatzi du, Maria Jesus Antia Albizuk lagunduta.

3.- Erabaki hau legeak agindutako eran jakinaraztea alegazio jartzaileei, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea jendeak horren berri izan dezan.

6.- ESKARI – GALDERAK.-

Alkate Lehendakariak zinegotziren batek eskari galderarik luzatu nahi duen galdetzen du.

IZUSTARRIko eledunak hau eskatu du:

1.- Apirilean aurkeztu ziren mozioak dagozkien forotan eztabaidatzea eta Udalbatzarraren gai zerrendan sartzea, horiei buruzko erabakiak hartzeko.

2.- Lan osasunaren nazioarteko eguna dela eta, 2004an 111 pertsona hil zirela salatzen du, eta 63.000 pertsonak izan zutela lan istripuren bat.

Istripu tasa, Hego Euskal Herrian, Europar Batasunekoak halako bi da, heriotza eragiten duten istripuen %65 kontrata edo azpikontratapean gertatzen dira, 25 pertsona baino gutxiagoko enpresetan, langileen erdiak baino gehiagok "lan erritmo ikaragarriak" dituzte, langileen %40k lan monotonoak egiten dituzte, %33k bizkarreko mina dutela adierazten dute, %28k estresa, %15ak jazarpen morala edo larderiazko jokabideak pairatzen dituzte, eta %65ak ez dute estalita osasun zaintza.

Gai honek leku handirik alderdi politikoen agendetan eta, gainera, ez dago modan, baina oinaze handia eragiten du.

Udalak Joxe Mari Korta industrigunean Siliconas Silam enpresak duen pabiloian gertatu zen sutean udalak duen erantzukizuna zein den galdetu du EB-BERDEAK taldeko ordezkariak.

Udalak inolako erantzukizunik ez duela erantzun du alkateak. Arazoak izan ziren uraren presioarekin, baina ez zen inoiz ur faltarik izan.

Sutea hasi eta bi edo hiru ordutara azaldu zen arazoa. Inor ez zen arazoaz jabetu, industrigunearen jarduera normala aurrera eramateko nahiko presio bai baitzegoen.

Gainera, sistemaren egoera egiaztatzeko frogetan ez zen arazo hori hauteman. Gainera, suteetako ur hartuneak jarri zirenean, lur gaineko beste linea bat jarri zen, aurrekoak legearekin bat ez zetorrelakoan. Hala ere, ez zuen eragin handirik izan sutean, eta ez zen ur zerbitzuetako kamioia erabiltzeko premiarik izan.

Maiatzaren 3an Oxforden egingo den bilerara edonor joan daitekeen galdetu du IZUSTARRIK.

Kulturarekin lotutako elkarte eta pertsonen gonbidapenak bidali zaizkiela erantzun du kultura zinegotziak.

Azkenik, Paola udal aldizkariaren ardura duen zinegotziak gogoratu du maiatzaren 17an amaitzen dela idatziak aurkezteko epea.

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate-Lehendakari andreak bilera amaitutzat ematen du, gaueko bederatziak eta berrogei minutu direnean, eta nik Idazkariak fede ematen dut.

ALKATEAK O.E

IDAZKARIAK